

Proiektu Eragile 10 ETXEBIZITZAREN AURREZ AURREKO PLANA

AZALPENA:

Plan Estrategikoaren dokumentuaren arabera (vide C.1.8) *“Hiriko gazteak Donostian bizitzen gelditzea bermatu nahi izanez gero, etxebizitza duina eskuratzeko erraztasunak eskaintzea puntu estrategiko eta oinarritzkoa da. Hiriko politika Erkidego Autonomikoko eta Estatuko artean aitzindaria den arren, politika horri eutsi eta, ahal izanez gero, hobetu egin beharko litzateke. Hirian benetako gizarte kohesioa lortzeko, profil sozioekonomiko jakina izateagatik politika horretatik at gelditzeko arriskua izan dezaketen beste kolektibo batzuk ere aintzat hartu beharko lirateke, hala nola, baliabiderik gabeko adineko pertsonak, pobrezia mailara heltzen diren familiak, etorkinak, e.a.”*

Etxebizitza lortzeko arazoari ikuspuntu integratzailetik aurre egin beharrak eta egungo etxebizitza merkatuaren ezaugarriak kontuan izanik, aurrez aurreko neurriak hartzea eskatzen du, ahal den neurrian, behinik behin, egungo desorekak zuzendu ahal izateko. Beraz, gutxieneko adostasuna izango duen Aurrez aurreko Plan bat egitea behar-beharrezkoa da, epe ertainera begirako beste estrategia bat garatu behar dela ahaztu gabe.

HELBURUAK: C-1 helburuan eragiten du bereziki.: *“Donostian gizarte ireki eta solidarioa, bizitza eta giza eskubideen defentsarekin konprometitutako instituzio eta gizarte zibila dituen, elkarbizitza baketsua eta hiritar guztien integrazioa lortzea”,* baita C.1.8 estrategian ere: *“Etxebizitza politikak zehaztu, babestutako etxebizitza politika, besteak beste, hiritar guztiak, gazteak eta aukera gutxien duten taldeak batez ere, etxebizitza eskuratzeko errazteko*

DESKRIPZIOA:

Etxebizitzaren Aurrez aurreko Plana egiteak etxebizitzaren gaiaren inguruan instituzioek burutu beharreko jardueretan ados jartzea ahalbidetu behar du:

- Sustatzeko etxebizitza kopurua (publikoa eta pribatua)
- Sustapenak eremutan banatzea.
- Kontratu motak.
- Etxebizitzak erosteko araubide juridikoa.
- Etxebizitza motak.
- Lehentasunezko sektoreak, e.a.

Halaber, sustapenak kudeatzeko eredia ere zehaztu beharko litzateke, etxebizitza politika bizkor eta eraginkorra izateko beharrezko baliabideak sortuz